



Kanalak

KOMUNIKAZIO ETA SUSTAPEN KANALAK:

Gure aplikazioa arropa trukatzeko plataforma digitala denez, gure komunikazioa eta sustapena zuzenean lotuta daude ingurune digitalean bezeroak erakarri, fidelizatu eta gure zerbitzua ezagutarazteko beharrarekin. Horretarako, komunikazio-bide digital eraginkorrak erabiliko ditugu gure identitatea indartzeko eta erabiltzaile kopurua handitzeko.

Gure bezeroekin harremana mantentzeko eta truke-prozesua erraztu eta erakargarri egiteko hainbat bide planteatu ditugu. Alde batetik, sare sozialak izango dira gure komunikazio-bide nagusiak, gaur egun eduki bisualak duten garrantzi handiagatik.

Interneteko beste komunikazio kanal bat gure aplikazioko mezu zuzenak izango dira; bertan, erabiltzaileek zalantzak argitu edo truke-prozesuari buruzko informazioa jaso ahal izango dute. Modu horretan, bezeroekin hurbiltasun handiagoa lortuko dugu.

BANAKETA ETA SALMENTA KANALAK

Gure plataforma digitala denez, banaketa-prozesua argia, azkarra eta eraginkorra izatea ezinbestekoa da. Horregatik, Correos aukeratu dugu gure bidalketa-kudeaketarako, pakete arinentzat prezio egokiak eta estaldura zabala eskaintzen dituelako. Zerbitzu honek aukera ematen digu erabiltzaileei bidalketa-modu fidagarria eta eskuragarria bermatzeko.

Jasotze eta bidalketa prozesu osoa Omaimak koordinatuko du. Bera arduratuko da paketeak behar bezala antolatzeaz, bidalketa eta jasotze prozesurako beharrezko etiketak kudeatzeaz, eta paketeak dagokien bidalketa-puntuetara eramateaz. Horrela, truke-prozesu osoa modu eraginkor eta antolatuan garatuko da, erabiltzaileentzako esperientzia fidagarria eta eroso bermatuz.

APLIKAZIOAN TRUKEAK NOLA FUNTZIONATUKO DUTEN:

Gure aplikazioan truke-prozesua modu errazean eta intuitiboan garatuko da, erabiltzaileen arteko esperientzia segurua eta koordinatua bermatuz. Lehenik eta behin, bi erabiltzaileek aplikazioaren bidez adosten dute trukea, produktuen informazioa eta baldintzak argi utzita. Trukea baieztatzen denean, aplikazioak automatikoki sortzen du bidalketa-etiketa, Correosen zerbitzua erabiliz, prozesua azkartu eta erraztu asmoz.

Behin etiketa eskuragarri dagoenean, bidaltzaileak paketea bere puntu hurbilenean uzten du, erabiltzailearentzat aukera eroso eta malguena izan dadin. Une horretatik aurrera, Omaima



arduratzen da paketeen mugimendua koordinatzeaz; berak jasotzen du paketea puntu horretan eta bere etxean egiaztatzen du produktua egoera egokian dagoela, trukeak kalitate eta fidagarritasun estandarrak betetzen dituela ziurtatzeko.

Produktua ondo dagoela baieztatu ondoren, Omainak paketea hartzaileari dagokion beste puntu batean uzten du. Azkenik, hartzaileak bere puntu hurbilenean jasotzen du paketea, trukea modu merke, sinple eta seguruan amaituz.

Sistema honen bidez, erabiltzaileek bidalketa prozesu arina, gardena eta fidagarria izango dute, aplikazioaren bidez truke esperientzia erraza eta segurua eskaintzeko helburuarekin.